

p o s i d o n i a
a u s t r a l i s

IRATI MAJUELO

E
l
k
a
r
r
I
r
a
k
u
r
r
i
z

BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

IRATI MAJUELO

posidonia australis

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Ez sinestekoa dirudi, baina hala da. Igandeko egunkariak zekarren berria: munduko izakirik handiena deskubritu dute. 200 km² zabal da eta 4500 urte darama bizirik. Australiako mendebaldean aurkitu dute, Shark Bay badiako ur gero eta beroagoetan. Kilometrotako izaki bat, hantxe, europarrek lehen aldiz Australiako lurretan euren oin zuriak busti zituzten itsasbazter berean, izeba Sonia iazko udan paseoan ibili zen kostalde berean. Ez sinestekoa, benetan.

Egia esan, ez daki zergatik behar lukeen hain harrigarri, gauza bat baita bere intelektuak horrelako izakirik imajinatzeko gaitasunik ez edukitzea eta beste bat, desberdina zinez, halakorik existitzeko aukerarik ez egotea. Nor da bada bera, tarraturiko sofa urdin batean hankak zabal-zabal irekita datzan gorputz mengela, erabakitze 200 km²-ko izaki batek berea baino existentzia harrigarriagoa izan behar ote duen. Hasiera-hasieratik onartu du hankasartzea, irakurketa ariketan huts, gaurkoan. Edo ispilu aurrekoan. Argi dago mundu hau ez dagoela 162 cm-ko izaki hutsal eta kaltebera baten neurrira eginda. Ez behintzat eguzkitan 15 minutuz egonez gero azala erretzen zaion, bere kasa ugaltu ezin daitekeen, sustriak non bota ez dakien baten neurrira. Eta hala ere. Oinek kuxinetik jauzi egin dute eta belauak tolestu zaizkio, ia konturatzeke, sofaren gainean dago zutik, besoak luze, egunkariko argazkiari begira, nolatan halakorik, non eta han, zer eta hori, nola eta hala... harridurak ez dio esku artetik ihes egiten. Argi dago, bai, mundu hau ez dagoela 162 cm-ko izaki hutsal eta kaltebera baten neurrira eginda.

Egia da, halaber, zientzialarien adierazpenek ez dutela uzten izakiari axolagabetasunez begiratzen, gasaren prezioaren igoerari edota Tigray-ko hildakoei nola. Arrunkeria litzateke kasik.

«Zur eta lur gelditu ginen», aitortu du Jane Edgeloe Proceedings of the Royal Society B aldizkari zientifikoan aurkikuntzari buruz argitaratutako ikerketaren buruak.

«Txundituta utzi gintuen zeharo», adierazi du Martin Breed doktoreak.

«Halakorik sekula ikusi gabeak ginen», gehitu du Kathryn McMahon adituak.

Eta irudikatu ditu, betaurreko lodi eta txaleko urdinekin, oinetako mina katusken pean, oharrak hartzeko bloka besagainean, txima ez guztiz garbiak mototsean bildurik, lehenengoa lana baita eta gero norbera, hiru eguneko loezina zimur sortuberri bakoitzean kateatuta, aurkitu berri dutena beste ezereen gainetik baitago orain, bereziki itxuraren gainetik, haiek zientzialariak dira, gainera. Ahoak zabal-zabal, irribarre erdiranzko joera eginaz baina harriduraren hedadura osoa irensten oraindik, elkarri begira baina itsasoari beha, olatuarteko apar hartara, ur kulunkariak estaltzen duen belardi dantzarira, zeina munduko izakirik handiena den. Eta haiek topatu dute.

Halaxe dago bera ere, zurtuta, aho zabalik, oinak egongelako zorura lurreratu eta gizatasunaren ahuldadeak egiaztatu nahiean. Harritzea ez dago lekuz kanpo, beraz, ados. Ikerlarien gogo-aldarte berean geratu dela onartu, ez eurek bezain harro, eta leihoa zabaldu du: haize piska bat, arren. Etxeko landareek ere eskertuko dute, hiltzean daude uda sargori honen ostean. Nahi gabe, ingurura itzuri zaio begirada: mahai gainean barreiatutako ogi-apurrak, apal liburuz beteegiak, bildu gabeko arropak sofaren alde banatan, landare iharrak hautseztatutako hostoei heldu ezinik; souvenir inozoz beteriko halako kutxa-gotorrik gabe ezingo luke mundu honetan luzaro biziraun. Egia objektiboa da hori. Eta izaki zikin horrek 4500 urte daramatza urpean. Ez armazoi, ez arantza, ez oskol. Pozoirik ere ez du bere alde. Joder.

Haserraten hasia da. Ez zuen uste munduko izakirik handiena landare bat izan zitekeenik, eta amorrarazten du horrek. Landare bat! Argi du, zaintzea bere esku egongo balitz, landare hori ez zen halako patxadaz kilometro koadrotan zabalduko, bizirik bi aste iraungo balu ere, pozik. Liburutegipeko begoniak dira testigu, aspaldi da hosto horituak baino ez direla zurtoinera eusten. Gutxi ureztatuz gero, loreak segidan erortzen dira, ur gehixeago botata, orban marroixkak edonon. Dena den, ez da guztiz hiltzen, sekula. Pentsarazi behar lioke horrek, bera zer da, begonia bizirik mantentzen duen azken esperantza, zainketa paliatiboak eskaintzen dizkion esku traketsa, edota biziraupena muturreko erronka bilakatzen duen zoro sadikoa, hots, itxaropen torturazalea. Agian, irakurri beharko luke nonbaiten zer behar duen begonia batek, loradendan galdetu bestela, zer argi, zein ordutan, nolako ura, zenbatero, zein substratu mota, noiz kimatu. Baina lan handiegia da hori. Agian, bakean utzi beharko luke.

Azken finean, hori da Australiako landare horrekin pasa dena, bakean utzi zuten, 4500 urtez bake-bakean, eta begira orain: munduko izakirik handiena da. Hazi bat zen, hazi bat besterik ez, eta orain 20.000 futbol-zelairen hedadura hartzen du. Babarrun bat baino txikiagoa zen hazi bat, zulo egokian eroria, unerik aproposenean esandako gutxiespen hitzak garunaren muinean txertatu eta ernaltzen diren modura hazi, eta ohartzeko, gutxinaka sustriak garatu eta lehen hostoak atera zituena, belar ezdeusa zenean inolako arrain, karramarro edota arraun-kolpek mokadu batez irentsi, ebaki eta erauzi ez zuena, itsas-korronte indartsuen eta lehorteen aurka nolabait malgu eta irmo mantendu zena, eta berezko antzutasuna gorabehera, bere kabuz ugaltzeko sistema garatu zuena, urtero 35 cm luzatuz, zentimetroz zentimetro zabaltzeko bidean oztopo edo mugarik aurkitu gabe, 20.000 futbol zelairen lekua hartu arte.

Momentu batez, munstro bat iruditu zaio Posidonia, hala deitzen baita landarea, munstroek dakarten izu eta higuin kiratsez blaitua, eta beldurgarria bere hedapen gaitasuna, isila baina etengabea, mantu baten gisara itsas azpiko lautadak eta sakonuneak, hutsak eta gorputzak estaltzen, aldiro apur bat handiago, aldiro apur bat izugarriago. Bururatu zaio, inteligentea behar duela, derrigor, eta maltzurra, akaso; haren izenean beldurrezko pelikula bat egingo balute, olagarro xurgatzaile baten gisara irudikatuko luketeela Posidonia, jendez gainezka dauden hiriak, auto-pilaketak dituzten errepideak eta, are, ume gaixoak artatzen dituzten ospitaleak irensten dituen kreatura litzatekeela, indar geldiezin bat, begi gorriak ezkutuan, bere handinahikeriaren biderkatze konpultsiboa kontrolatu ezin duen emakume izendun munstro bat.

Baina, berez, Posidoniak urpean firin-faran dabilzan itsas-belar zelaiak baino ez dira, kostaldera iristen diren alga berde-ubel horien tankerakoak, eta berriz gogorarazi dio bere buruari, inork inoiz ukitu ez zuelako egin dela horren izugarriki handia Australian aurkitu duten izaki hori, bake santuan utzi zutelako, alegia, eta ez leherketa nuklear baten ondorioz, pelikuletan agertu modura. Ez dauka superbotererik. Horrenbesteko beldurrik ere ezin du eman, beraz. Baina, ai, piztia bat eraiki du izen exotiko horren itzalean, eta ez daki orain harekin zer egin. Ukatu nahiko luke, sentiarazten dion guztia desagerrarazi, baina egia da notizia irakurri duenetik lurrikara txiki bat sortu diola sabelaldean, diafragma tentsionatu, bihotz-taupadak arinki bizkortu. Ez da beldurra baina, ez daki, ez dio lasai egoten uzten. Zerbait arrotza da. Hala ere, beste zer edo zer ere bada, biriken azpiko zera hori bestelako forma bat hartzen ari dela iruditu baitzaio arestian, mudatzen ari dela, mututzen. Samurtasuna dei diezaioke? Ez du maite duenik esango, ea, landare bat baino ez da, baina lotura bat ezarri du izaki harekiko, eta hurbila sentitzen du, komunikabideen flashetara makurregi agertu den izate babesgabea iruditzen baitzaio orain. Eta ez al zen bera ere 162 cm-ko izaki hutsal eta kaltebera bat?

Etxean izatera, mimoz zainduko lukeela pentsatu du. Badaki ez dela lorazainik onena, bai, baina oraingo honetan arreta berezia jarriko lioke, benetako esfortzu bat egin. Bihotza ukitu dio, nolabait. Eta horrek mugiarazi. Urpean egon beharrak ere lagunduko dio zerbaitetan, ez du ureztatzeetan pentsatu beharko behintzat. Eta ureztatzearen kontuarekin gogoratu du, bat-batean, nola halako zerbait esan zion izebak horri

buruz, iaz uda amaieran izango zen, begi dizdiratsuak zituen eta azala beltz, Australian egona baitzen 20 egunez, han xahutu zituen harategiko lanarekin irabazten zituen urteko opor guztiak, "bizitza osoko ametsa zen, neska" errepikatzen zuen hiru esaldiz behin, xerratutako solomo kopurua aski arrazoi ez balitz bezala oporretan nahi duen lekura joateko, eta orduan errepikapen eta errepikapen artean, orduan esan zion: "opari bat ekarri dizut, tentelkeria galanta, badakit eta ez zarela batere abila horrelako kontuetan, baina edonon saltzen zituzten han halako haziak, erraz hazten omen da, asko preziatzen dute han bederen, eta gainera, ez duzu ureztatu beharrik izango."

Eta poltsatxo more bat jarri zion esku artean, lazo bat eta eta paper txiki bat zintzilik. Eskerrak eman eta poltsatxoa bizkar-zorroan sartu zuen, etxera iristean atera eta egongelako mahai gainean uzteko. Aste batzuetara ohartu zen traba egiten ziola han, eta apal batera mugitu zuen, eta handik armairura edo kaxoi batera, eta gero... gero haren presentziaz zeharo ahaztu zen gaur arte.

Ez du kasualitateetan sinesten, eta bada, gaur gogoratu bada poltsatxo hartaz, zerbaitengatik izango da. Egunkaria esku artean hartu, landarearen berria irakurri eta ostean sabelaldean sortu zaion gorabehera arraro hori ezin da kasualitatearen esku utzi. Seinale bat izan da eta estu heldu behar dio, ezin dio ihes egiten utzi. Nonbaiten egongo da hazi-poltsa, etxean zegoen eta etxean jarraituko du, beraz, bilatzeari ekin dio, aurkitu behar du, beharra du.

Eta beharra zuenez eta seinale bat zenez, hantxe aurkitu du, ezinbestean, galtzerdien kaxoiaren ezkerreko aldean, aspaldiko bikiniak eta zikindutako kulero zaharrak pilatzen diren zulo beltzean. Espero zuen gisara Australiatik ekarritako aleak dira, ilar zanpatuen itxura daukate. Oraindik ere belusezko lazo txikiari helduta jarraitzen du bitan tolestutako kartulina horixka batek, zeinak letra-tipo elegante samar batean hala dion:

Posidonia australis

Eskuarki xingola-belar modura ezaguna, Australiako hego eta mendebaldean ohikoa den itsas belarra. Urpean 1-15 metrora dagoen harea zurian sustraitu ohi da eta 15-30°C temperatura-tartean hazi. Muturreko egoeretara moldatzeko gaitasun handia du.

Jarraibideak:

1. Hazia harea zurian erein, 10 cm-ko sakonera utzi hondoraino, 5cm-koa gainazaleraino.
2. Kristalezko potea, gardena ahal izatera, goraino itsas-urez bete.
3. Leku argitsu batean jarri. Ez diezaiola argiak zuzenean jo.
4. Ez du ureztapen gehigarrik behar, bere kabuz hazten utzi.
5. Sustraiak leku askirik ez dutela ohartzean, poto handiago batera lekualdatu.

Zientzia, horren zehatz beti. Kalabaza-hazi berde bat dirudien gauzatxo hori harean sartu eta urez bete, hori da, beraz, egin behar duen bakarra. Eta gero, noski, bakean utzi. Ea, bada, harea zuririk ez dauka etxean, lur lehor apur bat bai, baina horrek ez omen du balio. Australiaraino ez du inolaz ere joateko asmorik, grazia egin dio landarearen kontuak, baina atxikimendua ez da horren estua. Ez da aukera erreal bat. Kantaurira bisita egin lezake, asteburua Zarautzen igaro udari amaiera eman eta bere proiektu berrirako materiala jasotzeko. Hala ere, zuri-zuria ere ez da, ez gaitezen engaina, eta gainera hurrengo larunbata iristerako, kontuarekiko sentitzen duen suhartasun-maila nabarmen jaitsiko zaio, lan-egun bakoitzeko esponenzialki beheratuko. Beraz, erabaki du etxean aurki dezakeenarekin aurrera egitea. Ez du besterik. Eta hala, une horretan, Agatha etorri zaio gogora une horretan.

Ile luze-luzea zuen Agathak, zuri-beltz urdindua, zilarrezko izaera haizatzen ziona. Begi berde biribilak, etorkizuna aurreikusteko kristalezko bolak. Akaso horregatik hil zen, hain gazte. Maite zuen Agatha, ateko zirrikitutik sartu eta bere magalean pausatzea gustatzen zitzaion, oin artean kiribiltzen ibili gabe. Zuzena zen, zintzoa zen. Kontua da duela urte t'erdi inguru hil zela, auzokidearekin izandako gorabehera bat tarteko. Deus dramatikorik ez, baina azkenerako, ai Agatha. Maite zuen ile-zaku hura.

Joan bazen, joan zen, eta etxean geratu ziren Agatharen zainketari zegozkion traste guztiak, tartean katuentzako harearen lau zaku. Harea zuria, ongi gogoraratzen duenez. Kristalezko botila katuentzako harea zuriz bete du, beraz, 15 zentimetro inguru. Kontu handiz Posidonia hazia erein, txorrotako ura ireki eta leporaino bete. Amaitzeko, lauzpabost goilarakada gatz, eta indarrez eragin dio goilararen kirtenekin, guztiz disolba dadin. Iraila da, tenperatura egokian dago etxea momentuz. Orain, itxarotea baino ez da geratzen, hazten uztea.

Madari-zukua gordetzen duten kristalezko botiletan sor liteke paradisu txikirik? Ongi daki ezetz. Are gutxiago ekosistema australiarrik. Hori dela eta, pentsatu du, behintzat, itxura emateko bada ere, ingurua girotu beharko lukeela, hazitxoak etxean sentiarazi horrenbeste kilometro egin ostean. Gutxienekoa da. Ordenagailuan Shark Bay googleatu, labar gorri eta harea zurizko hondartzetako bat aukeratu eta horrelako larrialdi uneetarako erosi zuen inprimagailuan papereratu du. Horman bermatu eta kristal gardenean islatzen dela ziurtatu da.

Hobeto. Hala ere, ez du inolako mugimendurik sumatzen. Argi gutxiegi du agian? Sukaldean eduki du orain arte, ereite-prozesurako lekurik egokiena zelakoan, baina aurrerapen urriak —nuluak, argi hitz egiteko— ikusita, egongelako apal batera aldatu du. Apal horretan, baina, hautsak janda, badaude jadanik bi begonia lehor eta ilargi-lore burumakur bat. Ez du ematen lurzoru egokiena denik bizitzarako. Lehoi ertzera eraman du segidan, eta tarte batez egon zaio beha, ea sustrairik ikusiko katuen pixaren modura, harea harritsu zuri-grisean bidea egiten; baina, ezer ez. Mutur horixka fin bat ere ez.

Haserratzen hasia da: nola izan liteke horren zaila? Bakean uzteko esan diote, eta hori da egin duen bakarra, hazia landatu eta bere horretan utzi. Bere kasa, bere kabuz, bere gisa, bere berezko beretasunean bere. Eta begi parean du emaitza: deus ere ez, kristalezko botila batean sartutako hondartza faltsu bat baino ez. Argia du soilik benetakoa, eta hori ere gehiegi, konturatu denez, zuzen-zuzenean jotzen baitio lorontzi bitxiari. Azkenerako egongelako mahai gainean utzi du, hasiera batean behar luken leku horretantxe, eta etsita, alga txatxuari hazteko pizgarriak bilatu dizkio. Euri-urez ureztatu —hobe esanda, ihintzatu — du lehenik, flexo baten argi fluoreszentean berotu, emankortasun erritu bat egin; auzokideari ere galdetu dio trikimailu bereziren bat, bera baita eraikin osoko lorerik ederrenak dituen, baina katu-hareaz egindako substratuarena ez dio aitortu, noski, gehiegi litzateke hori. Ez duela landare mota hori ezagutzen, eta leihoa itxi dio behar baino lehenago, elkarrizketa amaitu aurretik. Zerbait ezkututzen du, seguru, katu-hiltzaile horrek.

Ez dauka horretarako denborarik, ordea. Erabaki bat hartu beharrean dago: frakasora kondnaturik dagoen nahi eta ezinean jarraitu edo porrota onartu. Azeleraturik mugitzen da etxeko gela batetik bestera, eta horrelakoetan ezin du argi pentsatu, baina egia esan ez dago asko hausnartu beharrik, nahiko agerikoa da hautua. Frustrazioa lepagainean, masailak lotsatuta, aurretik haserrea, beldurra, are samurtasuna sentitu izanak amorru biziz jarri du, sututa, zergatik pasa ote du bere egun libre bakarra landare zikin horrekin bueltaka. Zertarako. Aski da. Kristalezko botila hartu eta egunez egun betzuloak gainjartzen doazen moduan pilatzen joan zaion zabor mendira jaurti du, zorte txarra alde, kuboaren ertzean jo eta oinarrian arrakala bat

ireki baita, harea eta ura itzuri. Lehortuko ahal da garbantzuz zapal madarikatua. Ahaztu zaio, baina, baldintza muturrekoenetan, egoerarik makurrenetan hazten dela Posidonia.